

### Sumendiei buruzko kronikarik zaharrena

**A**zken 400 urteotan gertatu diren udako hotzaldiak sumendien agerpen bortitzei zor zaizkie. Hala uste dute behintzat, zuhaitzen eraztunak aztertzen diharduten ikerlariak. Ipar Hemisferioko zenbait zuhaitzek sumendiek izan duten jokabidea "gorde" egin dute bere bai-

### Basoetako altxorra galtzen ari gara

**B**aso eta ohian tropikaletako 250.000 landare-espeziek ezaugarri terapeutikoak dituela onartzen da gaur egun eta horietarik herena sendabidez dugu Europan. Basoetako "uzta" ordea, galtzorian dago azken ikerketen arabera. Orain arteko joerak bere horretan segituz gero, hurrengo 30 urteetan 60.000 landare-espezie erabat desagertuko direla iragarri du biologo-talde batek. Aurrikuspen horien arabera, galduko diren landare-espezieen artean sendabide asko legoke. Ikerketak konponbideak ere aztertu ditu; horren arabera, nahikoa litzateke hurrengo bost urteotan 8.000 milioi dolar urteko inbertitzea basoetako altxorraren iraupena ziurtatu ahal izateko. Asko dirudien arren, dirutza hori hondar-alea baino ez da betirako gal litekeenarekin alderatuz gero.

Ipar Hemisferioko zenbait zuhaitzek sumendiek izan duten jokabidea "gorde" egin dute bere baitan eta egoera horietan sortzen diren eraztunak ohi baino meheagoak izaten dira.



tan, egoera horietan sortzen diren eraztunak ohi baino meheagoak baitira. Orain arte Ipar Amerikako eta Europako 134 zuhaitzitan burutzen ari dira ikerketa horiek, zuhaitz-eraztunen egitura eta sumendien agerpenei buruzko informazioa alderatuz.

### Zaigüeien mozkorraldiak

**G**auetz irteten dira ehizara eta zuhaitzetan bizi dira. Alabaina, Zeelanda Berriko zarigüeiek ugaztun hauetan erabat harrigarria den portaera




Zeelanda Berriko zarigüeiek ugaztun hauetan erabat harrigarria den portaera erakutsi dute pasa den otsailaz geroztik: mozkorturik baleude bezala jokatzeko egunez irteten dira eta zuhaitzetatik zerbaitek bultzatzen izan balitu bezala erori egiten dira.

erakutsi dute pasa den otsailaz geroztik: mozkorturik baleude bezala jokatzeko egunez irteten dira eta zuhaitzetatik zerbaitek bultzatzen izan balitu bezala erori egiten dira. Portaera arrotz hori lehen aldiz laborategiko zarigüeiek erakutsi zuten, baina Zeelanda Berriko bazter guztietan eman da antzeko fenomenoak. AgResearch ikerketa-zentruan diharduten biologoek berez azaldu den birus bati egotzi diote zarigüeien jarrera-aldaketa hori eta gainera, birusaren etorrera mesedegarria izan dela gaineratu dute. Zeelanda Berriko nekazariak izan ere, etsaitzat dituzte ugaztun txiki horiek. Zarigüeia Amerikatik eta Australiatik iritsitako espeziea da

eta oraindik egokitzen ari den prozesuan dago. Ingurune berrira ohitu arte beraz, berebiziko triskantzak eragiten ditu bertako faunan. Horrez landa, neurririk gabe hazi da zarigüeia-populazioa azken urte hauetan eta kontrolerako sistema guztiek orain arte porrot egin dute. Hori guztia ikusita galde genezake noraino den berez etorria birus berri hori. Oraingoz ez da erantzunik eman.

### Libiako "habia"

**M**editerraneo itsasoan zehar bidaiatu eta gero, 21. orrialdeko argazkian ageri den kareta



**Kareta mediterraniarraren %60 inguruk Libiako kostaldera jo ohi du, hutsik egin gabe, arrautzak errutera. Baina, etorkizunean horrela izango al da?**

dortoka (*Caretta caretta*) Libiako kostalde-rantz abiatuko da eta han arrautzak jarriz espeziearen ugalketa eta iraupena ziurtatuko ditu. Zergatik Libiara? Edonori bururatzeko galdera horixe da eta hain zuzen, horren erantzunaren bila ari dira bertan World Wide Fund erakunde-ko kideak. Uraren tenperatura eta kostaldeko bazterretan dortokek aurkitzen duten lasaitasuna dira leku horreki-ko zintzotasuna azal dezaketen faktoreak. Kareta mediterraniarraren %60 inguruk Libiako kostaldera jo ohi du, hutsik egin gabe, arrautzak errutera. Orain arte bederen, horrela gertatu da. Alabaina, etorkizunean horrela izango denik ezin du inork ziurtatu. Libiako kostaldeko baldintza egoki horiek aurki alda

litezkeela ohartarazi baitute WWF erakunde-koek. Beste zenbait lurraldetan usu gertatu den legez, turismoa eta arrantza, hau da, bi iharduera horiek neurririk gabe burutzeak arriskuan jarri du Mediterranioko dortoken ugalketa-modua eta bide batez, espeziearen iraupena ere.

### Habia utzi beharraz

**Z**ikoina gazteen %25 inguruk gurasoek eraturako habia utzi eta beste zikoina helduren baten habian onartua izaten ahal-legenduko da. Berriki jakin ahal izan dugunez, umaldian kide asko dagoenean, zikoina gazte-ek ez dute sendiarekiko batere begirunerik iza-

ten: mantenua ziurtatu ahal izango dutelakoan, habia utziko dute eta kide gutxiagoko habiren batera joko du. Gauzak ongi, bigarren habi horretan onartua izateko arazorik ez du izango baldin eta habitik ihes egindako beste zikoina gazterik aurretik iritsi ez bada. Izan ere, bigarren "okuparik" ez da zikoin-habietan onartzen. Naturak jarrera abegitsuen eta gehiegikerien arteko muga jartzen asmatu du, agidenez.

### Itsaso Gorriko polipoak

Itsaso Gorriko koralek ez dute kolesterolaren gora-beherarik inoiz jasango.

Beren dieta askok uste baino orekatuagoa da eta Munch-eko Unibertsitateko biologoek behatu dutenaren arabera, Itsaso Gorriko koralak fitoplanktonaz baino ez dira elikatzen.

Bestela esanda, herbi-boro hutsak dira.

Arrazoi desberdinak direla medio, arrezife-egiturak huts egiten du Indiar Ozeanoko barne-itsasoan. Polipoen eta arrezife-egitura osatzen duten algen arteko el-karkidetzak ez da besteetan bezala gauzatzen. Biologoek uste dutenez, algek ekoiztutako substantziarik gabe bizi ahal izateko, polipoek bere burua egokitu behar izan dute. Egokiera horren ondorioz, fitoplanktona zooplanktona baino ugarioagoa den itsaso tropikaletan garatzen dira polipo herbiboroak. Muncheko ikerlarien iritziz, ahalmen horrek polipo horien hazkuntza azkarra justifika lezake. Kontutan hartu beharreko ugalketa-sistema da, beraz.



**Indiar Ozeanoko barne-itsasoan, polipoen eta arrezife-egitura osatzen duten algen arteko el-karkidetzak ez da besteetan bezala gauzatzen.**

